M. Caja 2-19 VMSS-66

1ª Adventus +

@ Bizkaiko Foru Liburutegia

@ Bizkaiko Foru Liburutegia

Tunc videbunt Filium hominis venientem in nube cum potestate magna, et majestate. Luce Cap. 21. V. 27.

Orduan icusico dute Guizonaren semea altasun, ta magestade andiarequin odei baten gañean etorten. Ytz oec arquitcen dira S. Lucasen oguei ta bat garren capitulüan.

Cristauac, fedeco eguia da, gucioc ill eta bereala jusgatuac ta sentenciatuac izaten guerala: baña fedeco eguia ere da, munduaren azquenean gueren corputz eta arimarequin piztu, ta Josafaten celayan aguertu bear degula. Orduan icusico degu Guizonaren semea altasun, ta magestade andiarequin odei baten gañean etortcen. ¡O, eta cer etorrera tristea! Bay: bada etorrera onequin batuco dira munduac guri eguiten dizquigun engaño gucïac, eta etorrera au izango ere da munduac guri beguien aurrean paraco diguen azquenengo icusgarria: Egun eguiazco izugarria batzuentzat, baña baquezcua, atseguinezcua, ta consuelozcua besteentzat; esperanza andicoa Justuentzat, baña bildur andicoa pecatarientzat: eta ¿cergatic uste dezue? cergatic egun onetan gure concienciac mundu guciaren aurrean aguertuac izango diran. Eguia onen consideracioac eguiten cituan Elizaren asieraco Cristauac persecucioetan sufrituac, trabajuetan alegreac, ta desprecioetan gloriosoac: Consideracio onec sendotu zuen Martirien fedea, indartu zuen Virgiñeen firmetasuna, eta gozatu cituan ermitañuen penitencia gogorrac: Consideracio onec azquenic bete cituan desiertuac eta conventuan mundu guezurtiari guerra eguingo cioten ainbeste Religiosoz. Eta guri gueroi consideracio onec berac, ¿cer eraguiten ez digu? Esazue eguia, egun izugarrizco artan zuen concienciac mundu guciaren aurrean aguertuac izango dirala; iñoiz considera tcen jarri ceratenean, ¿ez dituzue zuen vistetan Jaungoicuagana convertitceco movimentuac sentitu? ¿ez dezue lengo vicimodu gaiztoa ontceco, eta lengo oitura charrac uzteco, asmo firme bat artu? Bay: baña ¿irauten dezue eguiaz dituzuen propositoetan, eta artu dituzuen asmuetan? Ez;

@ Bizkaiko Foru Liburutegia

eta ¿ergatic? argatic beti gogoan iduqui bear guenduquen eguna au munduco berte gauza batzuec aztu eracitcen dizuen. ¿Cer da au, ó Jaungoico andia? Antciñaco Cristauen deseo gucia egun onen etorrera zan; Apostoluen, ta oien discipuluen consuelo gucia egun onegana beguira egotea zan: ta gaurco egunaco Cristauai egun au gogora ecartceco, Eliza Santac bere Ministroequin valiatu bear du. ¡Gauza arrigarria! Gauza jaquiña da Cristauac, amaren entrañetan sortu guiñala jayotceco; jayo guiñala vicitceco; vici gueralà illtceco; eta illco gueralà jusgatuac eta sentenciatuac izateco; ala ere, jaquiñic, ill ta bereala Jaungoicuaren Tribunalean aguertu bear degula, ta emen ematen zaiguen sentencia azquen eguneco juicioan mundu guciaren aurrean confirmatua izango dala, ¿ez dezue egun onequin acordatu nay? ¡Gauza arrigarria diot berriz ere! Egun au bada zuei betico gogoan sartceco asmoarequin igo naiz pulpitura; ez dizquizuet egun au baño lenago, ta egun onetan guertatuco diran gauza guciac explicatuco; bada au dempora ascoco lana da, bacarric aditcera emango dizuet gure viotcetan mella pisca bat eguingo duen circunstancia bat: au da, aditcera emango dizuet, egun onetan gure concienciaco bazter guciac mundu guciaren aurrean aguertuac izango dirala: baña onetaraco graciaren bear naiz; esca diozagun bada gucioc ifinten degula bitarteco Aingueruen Erreguiña Maria Santisima, eta esaten diogula guciac Aingueruu S.^n Gabrielequin batian Ave Maria

*Tunc videbunt Filium hominis venientem in nube &. ut supra.*

Munduan gucia da naspilla, ta beragatic gucia da desordena: Naspilla onetatic, au da, onac eta gaiztoac emen lurrean alcarrequin nastuac egotatic sortcen diran desordena guciac bitara ecarri ditezque. Pecatuac estalgarri asco arquitcen ditu munduan, eta argatic ez du pecatariac bear luquen lotsa sufritcen, virtutea berriz ez ta bear litzaquean becelo ezagutcen, eta argatic ez ditu ere Justuac mereci dituan alabanzac eramaten. Au da lenvicico desordena. Munduan pecataria guayenean arquitu oi da lecu eta

@ Bizkaiko Foru Liburutegia

empleo andienetan jarriric, Justua berriz gucien esclavo baliat becela, arguitcen da munduagandic despreciatua. Au da bigarren desordena. Baña bi desordena oiec erremediatuco dituzten beste bi gauza azquen egunezco juicioan aguertuco dira: bada alde batetic gure concienciac berac ezagutcera emango digute, cein diran onac, eta cein diran gaiztoac; bestetic berriz Justuac jarrico dira togui baten, eta pecatariac beste baten: eta ¿Nolacua izango da pecatariac orduan sufrituco duen lotsa? Au ondo ezagutceco ez tago beguiratu baicic pecatariac orduan iduquico dituan testigu ugarietara, pecatariac, bere pecatuac, bere argaltasunac, eta bere vicioac iñorc ere jaquin ez citzan, paratcen zuen cuidadu andira, eta pecatariac berac, munduan vici zala, iduqui cituan cualidadetara. Icusi dezagun.

Emen munduan bear ez dan gauzaren bat eguiten deguntan bereala lotsatcen guera, baña lotsa au quentcea gure escuan daucagu; bada ez degu eguin degun gaiztaqueria daquiten aurrean ez aguertcea, edo gure berri oraindic ez daquien beste togui batera joatea baicic: au eguin dezaquegu emen munduan, baña ¿azquen egunezco juicioan? ¡Ah! Orduan munduco criatura guciac jaquingo dituzte gure pecatuac, eta orduco gure lotsa ecin iñolaco moduz ere quenduco degu; joan naico degu iñorc icusi ecin gaitzaquen toguien batera, baña ecingo degu, nora nai goacela eta nora nai beguira dezagula, guciac gure concienciaco liburuan escribituac dauden gure pecatu guciac iracurrico dituzte.

Emen munduan eguin degun gaiztaqueria mediante dala, guenducan empleoa quentcen badigute ere, eta guenducan estimacioa galtcen badegu ere, arguitcen ditugu a la ere nai diguten eta mesedeac eguiten dizquiguten persona onguilleac, ta oiec munduac gurequin eguiten dituan desprecio eta murmuracioac sufritcen laguntcen digute: Baña ¿azquen egunezco juicioan? ¡Ah! Orduan ez tegu iñor ere arguituco nai diguenic, ez tigu iñorc ere meredesic eguingo. Lenago gure adisquide ciranac orduan gure contra jarrico dira. Adisquide oiec gu becela pecatariac izandu baciran, esango digute bear bada, ¡ah madaricatuac! baldin guc pecaturic zuengan icusi ezpaguendu, ez guiñan pecatuan erorico, eta ez guiñan ere betico condenatuac izango. Eta baldin adisquide oiec Justuac izan baciran, esango digute; Ah! hipocri-

@ Bizkaiko Foru Liburutegia

ta gaiztoac, eta ceiñ gaizqui usatu cenduten gure fede onac, eta ceimbait aldiz engañatu cenduen gure adisquidetasuna! Zuec maiten cenduan Justua, baña gogorroto izaten cenduen justicia: Zuec zuen guisaco adisquidetan arquitcen ez cenduen garbitasuna; leyaltasuna eta seguranza gugan maite cenduen; baña virtute oiec gure viotcetan sortcen cituan Jaunaren billa, beñere ibili ez ciñaten. Ez deguinai orain zuequin adisquide izan, eta jaquin izan baquendu ceiñ ciñaten, ez guiñan ere lenago izango: Orain ondo alcar ezagutcen degu, ez gaituzue orain lenago becela engañatuco; lenago edergui campatu dezue, eta orrequin zuen burusai betico condenacioa ecarri ere diezue; zoazte bada gure beguietatic icusico ez zaituztegun toquira.

Emen munduan azquenic, gure desgracietan parte artcen duten adisquideac arquitcen ez paditugu ere, asco dira orregatic gure vicimodu gaiztoaz miraric batere eguiten ez dutenac, eta orregatic gure lotsa ez da aiñ andia izaten: Baña ¿azquen eguneco juicioan?: Ah! Orduan guciac gure etsay izango dira, eta guciac gure vici modu gaiztoaz mira andia eguingo ere dute. Justuac, emen munduan gure miseriaz eta gure desgraciaz aimberste erruquitcen ciranac, azturic orduan gurequin idugui zuten piedadeaz eta usatu zuten misericordiaz, alde gucietatic erasoco digute, eta onequin ez contentaturic, escatuco diote Jaungoicoari, arren castiga gaitzala, vide orrequin bere glorian vengatceco. Gure gañetic farre ta burla eguiñaz, esango digute; beguira emen Jaungoicuaz beñere acordatcen ez citzan guizonac, beguira emen beren confianza gucia vanidadetan eta guezurrean paratcen zutenac. ¿Nun dira zuen mundaco adisquideac? Nun dira zuec mundaco aimberste empeñurequin, aimberste contu eta cuidadurequin cervitu dituzuen munduco andiac? Lenago zuen confianza gucia oyetan paratu izan cenduen, betoz bada orain onera, eta defendi zaitzatela al badute, ta libra zaitzatela berac eta zuec joan bearco dezuen eternidadeco condenaciotic; Beguira Justuen orduco itz eguiteco modua. Pecatariac berriz ez tira gure desgraciaz batere erruquituco, eta erruquitu bearrean gogoroto izango gaituzte eciñ gueyagoraño, alaco moduan nun alcar icustea sufritu eciñ degularic eternidade gucian egongo guera: azquenic guregandic

@ Bizkaiko Foru Liburutegia

urruti vicitu diran gendeac; Jesucristoren icen Santuaren berria oraindic adi-
tcera eman etzayen gendeac orduan gure contra alchatuco dira, esanaz, ah! es-
querbagueac! Jaungoicuac zuen artean eguin dituan milagruac gure artean
eguin izan bacituen, eta Evangelioco arguiaquin, ta fedearen, ta sacramentuen
socorruaquin zuec arguitu, ta indartu zaituen becela gu arguitu ta indartu ba-
guinduz, eguingo guenduan penitencia, eta zuec zuen condenacioraco gaizqui
usatu dituzuen graciaquin gu guere salvacioraco ondo aprovechatuco guiñan.
Eta pecatariac gauza oiec mundu guciaren aurrean aditcean ¿cer lotsa iduqui-
co ez tu?

Iriteac icusico du bere burua ceru ta lurragandic despreciatua, ta munduco criatura
guciagandic madaricatua: Arrazoiric eta entendimenturic ez daucaten criaturac
berac bera servitutaco damutanena aguertuco dute. Iguzquia illunduco da bere
gaiztaqueriai ez gueyago argui eguiteco: Izarrac escutatuco dira, bere pasio gaiz-
toen testigu dempora gueyeguian izandu dirala, aditcera emateco: Lurra iriguico
da, dempora gueyagoan bere gañean egotea sufritu ecin duen pecataria azpira
botatceco. Itz baten esateco, mundu gucia bere contra armatuco da, aimbeste aldiz
ofenditu duen Jaunaren gloria vengatceco. Ez tegu gugatic erruquituco danic
iñor ere arguituco, eta erruquitu ezaz gañera gure desgraciagatic atseguin artu-
co dute; gure gaiztaqueria guciaquin erasoco digute, eta ez tegu beste erreme-
dioric izango, anche bertan mundu guciaren aurrean lotsatuac eta deresespe-
ratuac egotea baicic. Au da, Cristauac, egun izugarrizco artan pecataria-
ren lotsa anditucoduen terribleco circunstancia, eguin dituan pecatu gucien
aimbeste testigu iduquitcea.

Goacen orain pecatariac bere pecatuac bere argaltanmac iñore jaquin ez citzan,
paratcen zuen cuidadua icustera: Ondo daquizue lucitcen duen gucia urrea ez dala;
ezta ere munduco persona beti izaten campotic dirudien becelacua: Mundua da
personac zomorroz jantziac aguertcen diran biltoqui bat becela; biltoqui baten
guizonac emacume jantzian, eta emacumeac guizon jantcian beren papera
eguiten duten becela, ala munduco personac ere eztiraden papera asco tan
eguiten dute. Nola gauden pacioz beteac, eta pasio oiec gauza onic beñere ez da-
carden, ala gure cuidadu gucia gure pasio gaiztoen villanqueria escutatcea,
eta ez querana aditcera ematea izaten da. Itz baten esateco, gure viotzaren to-
les gaiztoac iñorc ere ezagutu ez ditzan, gure genioa, gure pensamentuac, eta
gure inclinacioac, ocasioaz ta demporaz conforme aldatcen ditugu. Baña az-
quen eguneco juicioan gure engañuac eta gure falsoac mundu guciaren aurrean
aguertuac izango dira. Bay aditcen nazun guizona, eta bay aditcen nazun
emacumea. Zabiltza orain nai dezun guisara, eguizu orain devotaren papera,

@ Bizkaiko Foru Liburutegia

zuaz oraiñ Elizara, eta zaude an gogoac ematen dizun arteraño, zure obligacioac eta echeco cuidaduac alde batera utziric; engañatu ezazu mundua zure confesio sarritacuaquin: baña, ah, tristea! ez dezu Jaungoicua enganatuco, zure gaiztaqueriac oraiñ amama batequin estalitcen dituzu, baña orduan Jaungoicuac zure asco arnasarequin berarequin amama ori urratuco du, eta zure gaiztaqueria guciac mundu guciaren aurrean paratuco ditu. Nic, dio Jaungoicuac, nic bilducoditut zure inguruan, eta Nacio gucien aurrean zure amatzale guciac, eta mundu guciac iracorrico ditu zure desonerqueriac, iracorrico dituzte zu emacume ontzat cinduzcaten zure adiquideac, zure lasaiqueriaren berri etzequiten zure aideac, aimberste aldiz engañatu cenduen zure confesoreac, eta zure leyaltasunaz aiñ fio zan senarrac. Eta orduan ¿nora joango cera? Orduan ¿cer esango dezu, eta cer eguingo dezu? ¡Ah! cer lotsa izango da zure orducua! Andia duda gabe. Bay Cristauac: baña lotsa au, munduan vici guiñala iduqui guinducen cualidadeac berac, ar andiagua eguingo dute: eta au da irugarren circunstancia.

Asco dira munduan adiquide leyal, toliñaque, eta prestutzat iduquiac diranac, baña ¿cembait onelaco icusico eztira azquen egunec juicioan, cirala infame utsac, desleyal utsac, guiza charrac, fede, honra, eta conciencia baguecac? Cembait, iduqui cituzten cargu, eta empleuaquin ondo cumplitcen zutela que uste guenduenac, icusico eztira orduan, faltatcen zutela beren cargu, eta empleuen obligacioetan, batzuetan alperqueriagatic, beste batzuetan interesagatic, eta beste batzuetan munduco errespetuagatic? Cembait, que emen munduan santutzat guinduzcanac, icusico eztira orduan, cirala Ypocrita utsac, intencio charrecuac, gorrotoz, eta vengantzaz beteac? ¡Ah! Cristauac eguin dezaquezue emen munduan nai dezuen papera, baña jaquizue, ~~xxx~~ paper ori fiña ezpada, Jaungoicuac urratu eta surtara botaco duela: Ala nai det, engañatu dezaquezue oraiñ mundua, baña Jaungoicuac zuen ipocresia guciac azquen egunec juicioan aguertuco ditu, eta orduan betico Infernuco surtara erremedio gabe juan bearco dezue. Eta ¿nolacua izango da zuen orduco lotsa? ¡Ah! munduan gaiztaqueriaren bat equiten deguncan bereala lotsatcen guera, eta baldin gure gaiztaqueria au publicua equiten bada, gure lotsa ere andiagua equiten da: Jaquiñic bada gue eguiñ ditugun gaiztaqueria gucirac mundu guciaren aurrean aguertuac izango dirala, dudaric gabe gue orduan iduquico degun lotsa ere andia izango da. Munduan izaten degun lotsa pusca baña joaten zaigu, baña azquen egunec juicioan pecataria betico lotsatua quedatuco da; etzayo lotsa au beñere joango, ezta ere lotsa au astu eracico duen beste gauzaric guertatuco. Jesu Cristoren Tribunalean aguertu dana eternidade gucian aguertua egongo da

@ Bizkaiko Foru Liburutegia

Infernuan sufrituco dituan tormentuac beras aditcera emango dute, cembateraño cua zan bere viciuen, eta bere escandaluen gaiztagaeria: Baña ¿ceri nago, zuec daquizuena adieracitcen? Baña ez da aico jaquitea; ez da asco, diot, egun izugarrisco artan mundu guciaren aurrean gure concienciac aguertuac izango dirala, jaquitea, baicican bertatic abiatu bear dugu gure concienciac erregistratcen, eta egun artan betico lotsatuac guelditu ez gaitecen, bear diran neurriac artcen.

Icusiric bada, pecatariaac azquen eguneco juicioan sufritu bearco duen lotsa andia, icusi dezagun ere Justuac iduquico duen gloria eta atseguiña, araco bere concienciaco secretuac eta bere virtuteac concienciacia mundu guciaren aurrean aguertcen diranean: Orduan claru ezagutuco degu, etz zala munduan Justu eguiazco bat baño gauza andiagoric eta arrigarriagoric; Icusico degu, que emen munduan ecertaraco ere ez guinduzquen Justu oiec, que despreciatcen guinducen Justu oiec cirala munduan aimberste soñu ateratcen zuten, eta munduco atencioac eramaten cituzten Erregueac, eta Principeac baño ere andiagoac, eta beren arma vitoriaz beteac munduaren caburaño eraman dituzten General famatuac baño ere arrigarriagoac; Icusico degu, oiec eguiaz, eta ez pecatariac egon bear zutela munduan lecu altuetan empleatuac. Icusico degu azquenic, oien izenac bacarric, eta ez pecatariaenac merecio zutela historietan escribituac egotea: eta orreguin erremediatuco ere da onac eta gaiztoac emen lurrean alcarrequin nastuac egotetic sortcen dan lenvicico desordena; bada egun onetan ez du pecatuac estalgarriric iduquico, eta beragatic pecatariac lotsa andia sufritu bearco du. Virtuseoac berriz dan becela ezagutua izango da, eta beragatic Justuac merecio dituan alabanzac eramango ere ditu. Munduan pecataria gueyenean arguitu oi da cargu eta empleo andiaquin honratua, Justua berriz guciagandic despreciatua; baña azquen eguneco juicioan bigarren desordena au ere erremediatuco da. Justua jarrico da Jaungoicuaren escubico aldean, eta pecataria esquerrecoan. Guri dagoquigun aldea emateco, etz zaigu galdetuco ez gure izenaz, ez gure jatorriaz, ezta ere munduan iduquiditugun cargu eta empleguquin, bacarric galdetuco zaigu, ya animali ciquiñac, edo vildots inocenteac gueran, ala ez. Eta ¿cer eranzungo galde onetara? ¿cer erantzungo degu Jaungoicuac guri orduan emango digun sentenciara?

Iracorrico du Guizonaren Semeac mundu guciaren historia; au da, iracorrico ditu gure gucion viciuac, ta virtuteac, eta emago du sentencia;

@ Bizkaiko Foru Liburutegia

baña ¿cer sentencia? Gure eternidadeco suertea erabaquico duena. Atozte, esango du Gloriaco Erregue andiac Justuen aldera giraturic, atozte nere Aitaren bedeincatuac munduaren asieratic zuentzat prestatua dagoan ceruco erreñura. Pecatariac desprecioarequin beguiratu zaituzte munduan, jaquiñ bezate bada oiec, zuec izan espaciñaten, mundu^a oraiñ baño lenago acabatuco zala. Atozte; lenago atseccabeetco eta nequezco videtan jarraitu ninduzuen becela, jarrai nazazue oraiñ ere nere gloriaco vide ederretan: zuen nequeac dempora laburrecoac izan dira, baña orain gozatcera zoazten gloria beticoa izango da: Atozte bada nere aitarenhume bedeincatuac, igo zaitezte betico gloria onetara.

Siñaturic guero ezquerreco aldera, esango du, ez Gurutcean becela, aita nerea, barca zayezu, cergatic ez daquien cer eguiten duten, baicican, zoazte nere beguietatic madaricatuac, Satanas eta bere Ainguerucentzat prestatua daguan betico surtara. Zuec munduac lenago maitatu zaitue, baña oraiñ nere aitac madaricatcen zaitue. Zuen gaiztaqueriac, eta gaiztaqueria oyequin gozatu dituzuen atseguiñac dempora laburrecuac izañdu dira; baña oraiñ sufritcera zoazten penac, eta tormentuac betico izango dira. Zoazte bada madaricatuac Ynfernura betico pena eta tormentu oiec sufritcera. Sentencia au emanic, Justuac Guizonaren semea jarrita dagoan odei gañera alchaturic, cantatuco diote Jaungoicuari canta eder au: ¡O ceiñ averatzo ceran, Jauna, misericordian, ceñ ederqui coronatu dituzun gure virtuteac, eta ceiñ oso sariatu dituzun gure merecimentuac! Pecatariac berriz madaricatuco dute izatea eman cien beren aita, eta jayo ciran eguna: Yriquico dira Ynfernuac, eta pecatariac betico infernu onetara juango dira: Ietricoe dira Ceruac, eta Justuac betico ceru onetara igoco dira, eta zuec, Cristauac, ¿nora nai dezue juan?

Beste dempora baten Moysesec Ysraeltarri becela esaten ere dizuet, Cristauac, nic zuei; Ysraelco semeac, esaten cien Moysesec, nic esaten dizuet, gaur proponitcen dizuet betico bendeciua, edo betico madaricaciua: bendeciua gordetcen badizue Jaun, eta Jaungoicuaren mandamentuac, eta ~~[illegible]~~ madaricaciua gordetcen ez badituzue; ¿ceiñ artutcen dezue? Emen dago escubico aldea eta emen esquerrecua; emen promeeac eta emen tristezac; emen bendiciua eta emen madaricaciua: Ez dago erremediorie, edo egongo cerate Satanas eta bere Ainguerunen aldean, edo egongo cerate Jesucristoren eta bere Santuen aldean.

@ Bizkaiko Foru Liburutegia

Nic eracutsi dituet, ceindan Infernuraco videa, eta cein Ceruracua: Ezazue orain ¿cein videtatic ibili nai dezue? Baldin orain Jaungoicuaren Tribunalean aguertu bear bacendugue: ¿cein aldetan egotea artuco cendugue? Baldin orduan betico lotsatuac gueldítcea nai ez padezue, egun izugarrizco ura beti go-goan idugui ezazue. Ecartzue gogora beti Aingueruac joco duen trompe-ta misterioso ura, eta orrequin gure oraiñdañoco vici modu gaiztoa al-datuco degu; gure cuidadu eta deseo gucia ceruraco irabaciac eguitea izan-go da. Ea bada Cristauac, alde eguin dezagun vide gaizto gucietatic, gorde ditzagun Jaungoicuaren aguinduac, eta eguin dezagun bere vorundate santua; orrequin eguingo ere guera diñac contatuac izateco araco Jus-tuen artean, ceñai esango dien Jaungoicuac berac azquen eguneco jui-cioan, Venite benedicti Patris mei, posedite paratum vobis regnum ab origine mundi. Atozte nere Aitaren hume bedeincatuac munduua-ren asieratic zuentzat prestatua dagoan ceruco gloriaz betico goza-tcera. Ala guerta daquigula. Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren icenean. Amen.

@ Bizkaiko Foru Liburutegia

@ Bizkaiko Foru Liburutegia